

1.7. Bederatzigarren liburukiaren ezaugarriak

1.7.1. Liburukiaren edukia

Bederatzigarren liburuki honek 262 galderaren erantzunak eskaintzen ditu, esan nahi baitu galderetarik ehuneko hamar baino pixka bat gutxiago.

Erantzun horiek lexikoari buruzko gaiak (58-66. gaiak) estaltzen dituzte:

- 58: giza gorputza: burua (67 galdera);
- 59: gorputz-enborra eta gorputz-adarrak (86 galdera);
- 60: elikadura (13 galdera);
- 61: jantztea (7 galdera);
- 62: jantziak (27 galdera);
- 63: apaintzea (11 galdera);
- 64: oinetakoak (9 galdera);
- 65: sexualitatea, ugalketa (19 galdera);
- 66: haurtzaroa (23 galdera).

Liburukiaren bukaeran, indexak aurkitzen dira: bai mapen moldaketari dagokionena, bai erantzunei dagokiena.

1.7.2. Liburukiaren egitura

Mapei eta erantzunei dagokien parteak galderen arabera egituratua da: galdera bakoitzari badagokio alde batetik **erantzutegi** bat ezker aldeko orrialdean agertzen dena, eta, beste aldetik, haren parean, eskuin aldeko orrialdean, mapa bat, honen gainean galderaren **izenburuak** agertzen direla, eta behean maparen **legenda**, eta **ohartegia**.

Galdera bakoitzari doazkion erantzunak, herrialdeka eta inkesta-lekuka zerrendatuak dira eta alfabeto fonetikoan emanak. Haien arabera egin dute argitalpenaren moldatzaileek interpretazio kartografiko bat mapa batean proposatzen dutena. Inkesta-leku batean bildu den erantzuna zehazki jakiteko, erantzutegira jo behar da; beraz, ez mapara.

Irakurleak ikusten duen bezala, hemengo mapen itxura ez da Euskaltzaindiak lan horietan usaian egiten dituen bezalakoa. Izan ere, Nafarroa Garaiko mugak modu berezian agertzen dira haietan eta, halaber, herri izenak ere, gaztelaniaz eta euskaraz desberdinak direnean, euskara soilean agertzeko orde, deitura ofizialetako era elebidunean ematen dira. Hastapenetik proiektu honen babesleotarik izan den Nafarroako Gobernuak agintariek 2001ean hala biziki eskaturik egin dira gauzak horrela.

1.7.3. Galdera-izenburuak

Galdera bakoitzari dagokion gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko forma agertzen dira galdera-izenburu gisa.

Izenburu horren azpian, galderak EHHako galdesortan daukan zenbakia agertzen da eta, galdera bera ondoko mintzairerako hizkuntza-atlasetan ere egina izan delarik, atlas haietako galderen erreferentzia ere ematen da; adibidez, ALEANR (*Atlas lingüístico y etnográfico de Aragón, Navarra y Rioja*), ALG (*Atlas linguistique et ethnographique de la Gascogne*) edo ALE (*Atlas Linguarum Europae*).